



INMA ERREA
IDAZLEA

Politikariak gu gara

Politikari guztiak berdinak dira". Esaldi hori aditzen dudan bakoitzean, egonezinak kolpatzen nau. Norbait bere burua apolitikotzat jo edo munduko hiritar gisa aldarrikatzen duela entzunda nabaritzen dudan egonezin berak.

Beste klase bateko erranaldiekin ere gertatzen zait: arinagoak izan daitezke –proportzio baterako, aplikazio informatikoak intuitiboak direla ziurtatzen dituzten azalpenak–, edo hanpadura larriagokoak –amatasunarekiko mirespenak aletzen dituztenak kasu–.

Gezurra edo egia izan, berdin dio azkenean: esamolde milaka aldiz errepikatatu horiek tinko itsasten dira gure burmuinetan, eta zailak dira harrotzeko.

Simplifikazioak direnez, tranpak hauteman daitezke haietan, esan gabe esaten diren gauzak, iradokiak, eta esan gabe uzten direnak, ezkutatuta.

Horrek guztiak oso baliagarri egiten ditu manipulazio-tresna gisara.

Politikari guztiak berdinak direla aldarrikatzen denean, jende asko dator bat horrekin, segur aski ez dakielako nola egin aurre politikak eragiten dion dezepzio-sentipenari. Politikari guztiak berdinak direla esanda, diagnostiko lasaigarri bati heltzen ahal diogu: politika etsigarria da, baina gu ez gara horren errudun, errua politikariena baita.

Esaldiak, ordea, herritarrengandik aparte paratzen ditu politikan dihardutenak, arrakala sortuta batzuk eta besteen artean. Arrakala faltsua, politikariak herritarrak baitira, herritarron ordezkari, eta beraz, gure on eta txar guztien isla.

Politikari guztiak berdinak direla esaten badugu, esan gabe esaten ari gara haiek baino hobekak garelako –zintzoagoak ote, eraginkorragoak?–. Eta ezkutuan gordetzen dugu, esan gabe, politikarekiko destaina lauso bat, aldentze bat. Politikarekiko asperraldia. Eta hori, azken buruan, guztion afertan (finean hori baita politika) guztiekin kontatu gabe manatu nahi dutenendako mesedegarria baino ez da. Horiek, herritarren gauzetan herritarrokin kontatu gabe agindu nahi dutenek, bultzatzen dituzte arbuioa eta nazka politikari eta politikan ari direnei.

Ez dakit nola, baina duintasuna itzuli beharko genioke jardun politikoari. Politika inportanteegia da herritarrondako, funtsezkoegia, eta ez genuke utzi beharko politika gutxiesteko helburuz politikari guztiak berdinak direla iradokitzen digutenean eskuetan. Hauteskunde gehiegi egiten direla edo erreferendumak ez direla beharrezkoak diotenen eskuetan alegia. ●



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Belar jaleak

Hazilaren 4an abiatu da Ipar Euskal Herriko eskoletan, bi urte iraunen duen bazkari begetarianoak zerbitzatzeko esperientzia. Astean behin, garbantzuak eta dilistak dastatuko dituzte haurrek, agro-industriak ekoiztu sukrez eta gurinez ito janarien ordeiz. Eginkizun horrek, haragia ardatz daukan kultura nagusiaren premiazko aldaketa mentalari irekitzen dio atea.

Txitxiaren inguruan fabrikatu kontsentsuaren horma pitzatzearen kontra direnak badira sare sozialetan eta beren ez adostasuna agertzen dute bi norabideetan: batetik, gobernu makroniarrak jasaten lukeen bobo-eko-

lo urrineko lobby indartsuen eragin maltzurra salatzen dute eta bestetik, errepikatzen dabilta, ez dutela estatuaren esku-sartzea begi onez ikusten, eguneroko jateko ohituren intimitatea erabat aldatzea helburu. Bakarrek, haragia egunean bitan ez irensteak ekarriko lituzkeen ondorio medikalak ere aipatzen dituzte.

Harrigarriak gara. Nahi dugun zaborra jateko, edo mugagabeko abiaduran autoz ibiltzeko dretxoa aldarrikatu eta, gero, istripuz geldotzen edo gaixotzen garenean, estatuaren osasun sistemaz baliatzea eskatzen dugu, fermuki. Kontra-erranez beteak gara, egiak. ●